



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2015-I-26

KORRIKA 19 – HERRIKO BATZORDEA

Badator Korrika!!!! Adunatik martxoaren 21ean (larunbata) goizeko 9:00tan pasako da. Antolatzeko, hurrengo **asteartean (otsailak 3) arratsaldeko 6 tan kultur aretoan** herriko batzordea osatzeko bilera egingo da. **Animatu!!**

HONDAKINEN EDUKIONTZIEN ALDAKETA

Tolosaldean zehar aldaketa ezberdinak eman dira hondakin bilketa sistemetan. Ondorioz, kontenedore soterratuak dauzkagun herriak oso gutxi gara iada. Gaur egun, Aduna, Asteasu eta Andoain bakarrik gelditzen gara sistema honekin. Soterratuek bilketa berezia behar dute (Kamioi berezia, ruta berezia...) Honen ondorioz, herri gutxi izanik, bilketaren kostuak asko igotzen dira. Asteasuk ere gurekin batera kendu behar ditu eta honek urtean 22.000 euroko aurrezpena ekarriko digu gaur egungo egoerarekin alderatuz. Neurri honek, Adunako zabor tasa Gipuzkoako baxuenatakoa izaten jarraitzeko aukera ematen digu. Urriaren 7ko herri bileran esan bezala, zerbitzua mantendu ezina denez eta Tolosaldeko Mankomunitateko landa eremuetako bilketa homogeneizatu aldera, Otsailaren 12a baino lehen kontenedoreak aldatuko dira, hemendik aurrera lur gaineko edukiontziak izango direlarik.

Kokapenak oraingo berdinak izango dira hasiera batean, baina herritarrek beste kokaleku egokiagoak proposatzen badituzte ez dago inongo arazorik proposamen hauek aztertzeko. Beraz, edozein duda edo iradokizun eduki ezkerro Udalean komunikatu arazorik gabe.

Barkatu eragozpenak.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MARTXOAK 8 – EMAKUMEAREN EGUNA

Marxtoaren 8a (emakumeen nazioarteko eguna) lasiter dugu. Honen inguruan antolatzeke bilera batera deitzen zaituztegu.

GAIA: martxoak 8, Nazioarteko Emakumeen Eguna

NOIZ: urtarrilak 30, ostirala

NON: Adunako liburutegian

ORDUA: arratsaldeko 18:00etan

Anima zaitetze, zuen zalantzak, proposamen berriak kontuan izango ditugu.



AIZTONDO
Zerbitzuen Mankomunitatea

SU EGURRA LORTZEKO AUKERA

Foru Aldundiak egindako mozketak batzuen ondorioz su egurra banatzeko aukeran gaude. Egurra mendian dago eta mozketak han egin beharko du bakoitzak gero etxera garraiatu beharko duelarik.

Segurtasun neurri egokiak hartzea ere bakoitzaren ardura izango da eta udalean paper bat sinatu beharko da horren inguruan. Loteak hurrengo astean zozketatuko dira.

Apuntatzeko epea otsailaren 3 (asteartea), Udaletxean apuntatu behar da.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net